



Auzokide agurgarria

Aparkalekuaren araudi erregulatzaileria eta urteko prezioa arautuko duen ordenantza fiskala jasotzen dituen trafiko-ordenantza berria egiteko, onartzeko eta argitaratzeko beharrezko prozesuaren ondoren, Antsoingo Udalak aparkaleku-txartela/-bereizgarria eskatzeko epea irekiko du. Baimendutako ibilgailu guztiek aurreko kristalean eraman beharko dute, modu ikusgarrian.

Dakizunez, ordenantza biak onartu arte, eta Iruñeak ezarritako aparkalekuaren erregulazioak gure herrian sortutako egoerari ahalik eta azkarren erantzuteko, behin-behineko fase bat jarri zen martxan, non Antsoainen erregistratutako ibilgailu guztiak, jabea udalerrian errolatuta zutenak, fitxategi berekoak ziren eta araututako hirigunean aparkatzeko baimena zuten, garaje-plaza izan edo ez.

Behin betiko erregulazio horretatik aurrera, berriaz eskatu beharko da baimena. Zergatik? Aurkeztutako eta baimendutako eskabideekin bakarrik egingo delako fitxategi bat, eta hortik kanpo geratuko dira, garaje-plaza dutelako edo beste edozein arrazoiengatik, jabeek ordutegi mugatuan hirigunean aparkatzeko baimenik eskatu nahi ez duten ibilgailuak.

Nola eska eta eskura daiteke txartela/bereizgarria?

Hiru aukera daude:

1. Modu telematikoan, [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es) udalaren webgunearen bidez. Hau da aukerarik onena eta gomendatzen dizuguna, erosoena eta bizkorrena baita.
2. Jaso duzun agiria udal postontzian uztea. Horretarako, bete eta erantsitako gutun-azalean utzi beharko duzu, itxita, udal-bulegoetako postontzi berezietan:
  - Goizean, 08: 30etik 14: 00etara, udaletxeko bulegoetan.
  - Goizez eta arratsaldean, 09: 00etatik 22: 00etara, Mendikale kaleko Idaki enpresaren instalazioetarako sarbideen kontrolan.

(Paperean inprimaki bat baino gehiago aurkeztu behar izanez gero, Udalaren webgunetik deskargatu daiteke edo jasotakoa fotokopiatu).

3. Aurrez aurre, aurreko aukerak posible ez diren kasuetan bakarrik, datuak betetzean zalantzak daudelako. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da 948132200 telefonoaren bidez.

Eskaera egiteko epea uztailaren 1era arte egongo da zabalik. Aurkeztutako datu guztiak egiaztatu ondoren eta gerta daitekeen edozein akats edo dokumentazio falta zuzendu ondoren, Udalak txartela/bereizgarria bidaliko du helbide bakoitzera, matrikula-zenbaki partikularrekin.

Azalpen honekin batera, galdera-erantzunen dokumentu bat partekatzen dugu zurekin, txartelak/aparkaleku-bereizgarria emateko fase honi buruz dituzun zalantzak argitzen laguntzeko. Bertan, eskaera egiteko beharrezko dokumentazioari buruzko guztia ere argitzen da.

Nahikoa ez balitz, zure zalantzei udal bulegoetan edo 948132200 telefono zenbakian erantzungo diegu, astelehenetik ostiralera, 08: 30etik 14: 00etara. Helbide elektronikoa honetan ere bai: [participacion@ansoain.es](mailto:participacion@ansoain.es)

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Antsoainen, 2022ko ekainaren 6a



Estimada vecina / Estimado vecino

Tras el necesario proceso de elaboración, aprobación y publicación de la nueva ordenanza de tráfico que recoge la normativa reguladora del aparcamiento y de la ordenanza fiscal que va a regular su precio anual, el Ayuntamiento de Ansoáin va a abrir el plazo para solicitar la tarjeta/distintivo de aparcamiento que todos los vehículos autorizados deberán portar de manera visible en su luna delantera.

Como sabes, hasta la aprobación de ambas ordenanzas y para dar respuesta lo antes posible a la situación generada en nuestro pueblo por la regulación del aparcamiento implantada por Pamplona, se puso en marcha una fase provisional en la que todos los vehículos registrados en Ansoáin, cuya propietaria o propietario estuviese empadronado en el municipio, formaban parte del mismo fichero y tenían autorización para estacionar en el casco urbano regulado, independientemente de que tuviesen plaza de garaje o no.

A partir de esta regulación definitiva, la autorización deberá solicitarse expresamente. ¿Por qué? Porque se va a elaborar un fichero solo con las solicitudes presentadas y autorizadas, quedando excluido del mismo aquellos vehículos que, bien porque disponen de plaza de garaje o por cualquier otro motivo, sus propietarios o propietarias no deseen solicitar autorización para aparcar en el casco urbano durante el horario restringido.

¿Cómo se puede solicitar y obtener la tarjeta/distintivo?

Hay tres posibilidades:

1. De manera telemática, a través de la página web del ayuntamiento [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es). Esta es la opción preferible y la que te recomendamos, ya que es la más cómoda y ágil.
2. Depositando en el buzón municipal el formulario que has recibido. Para ello deberás rellenarlo y depositarlo cerrado en el sobre adjunto en los buzones especiales ubicados en dependencias municipales:
  - Por la mañana, de 8,30 a 14,00 horas en las oficinas de la casa Consistorial.
  - Por la mañana y por la tarde, de 9,00 a 22,00 horas, en el control de accesos a las instalaciones de Idaki de la calle Mendikale.

(Si es necesario presentar más de un formulario en papel, éste se puede descargar desde la página web del Ayuntamiento o fotocopiarse el recibido).

3. De manera presencial, solo para los casos en los que no sean posibles las dos opciones anteriores porque existan dudas a la hora de cumplimentar los datos. Será necesario solicitar cita previa a través del teléfono 948132200.

El plazo para solicitarla estará abierto hasta el 1 de julio. Comprobados todos los datos presentados y subsanado cualquier error o falta de documentación que pudiera darse, el Ayuntamiento enviará la tarjeta/distintivo con el número de matrícula particular a cada domicilio.

Junto a esta explicación, compartimos contigo un documento de preguntas y respuestas elaborado para ayudar a resolver tus dudas sobre esta fase de expedición de las tarjetas/distintivo de aparcamiento. En él se aclara también todo lo relativo a la documentación necesaria para solicitarla.

Si no fuera suficiente, responderemos a tus dudas presencialmente en las oficinas municipales o en el número de teléfono 948132200, en ambas opciones de lunes a viernes de 8,30 a 14,00 horas. También en la siguiente dirección de correo electrónico: [participacion@ansoain.es](mailto:participacion@ansoain.es).

Gracias por tu colaboración.

En Ansoáin, a 6 junio de 2022